

## Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Kultur Erakundearen lehentasunezko egitaraua argitalpen arloan

2007 bukaeran, Idatziaren eta Liburuaren Akitaniako Eskualdeko Bulegoak (ARPEL), euskarazko eta okzitanierazko argitalpenari buruzko ikerketa egin du, bi erakunde hauek manaturik :

↳ Akitaniko Kontseiluak, hainbat ikerketaren ildotik segitzeko: ARPELek 2005ean egin Akitaniako Argitalpenaz ikerketa, ASFORED-en azterketa (2006), CESREk egin tokiko kultura eta hizkuntzei buruzko ikerketa, Aqui d'Oc-en abiatzea, et Amassadaren sorrera

↳ Euskararen Erakunde Publikoak, haren hizkuntza politika proiektuaren obratzeko desmartzan, argitalpen sailean, lehentasunez jorratu beharreko lan ardatzak zehazteko xedez. Izan ere, irakurketa eta euskarazko beste euskarrien bidezko erabilpenean oinarri daiteke hizkuntzaren ikaskuntza. Hau dela, **euskarazko argitalpenaren kate eraginkor baten egituraketa errazteaz gain, eskaintza erakargarri eta eskuragarri baten alde eragiteko helburua finkatu du Hizkuntza Politika Proiektuak.**

Euskarazko argitalpenari buruzko zatiarentzat, erregulariki euskaraz argitaratzen duten 4 argitaletzek, banatzaile batek (euskarazko argitalpenean berezitua den bakarra), eta bost liburu-dendek osatutako lagin bat eratu da. Euskal literaturaren sustapenean ari diren hiru elkarte ere galdekatuak izan dira. Bestalde Euskal Kultur Erakundea hertsiki lotu zaie prozeduraren urrats ezberdinei.

**Ikerketaren lehen partean euskal liburugintzaren azterketa egiten da, ikuspegi ekonomikotik abiatuz, eta liburuaren katea bermatuz bere aktore ezberdinen egitekoen errespetuan.**

- Merkatu murriz baten errealitatea, zeinen geroa osoki lotua zaien euskarak datozen urteetan ezagutuko duen transmisio heinari
- Argitaletxeen erradiografia bat
  - kasik denek elkarte estatutua dute, eta ondorioz bertan ari den gehiengo zabala, ez da langile gisa ari baizik eta laguntzaile gisa
  - salmenten etekinak aski urriak dira 10 000 à 50 000€ren artekoak
  - etekinak murrizak izanki, diru laguntza publikoak erabakigarriak izaten dira
- Argitaletxe hauen ekoizpena:
  - Bi argitalpen segmentutan biltzen da orohar : helduen literatura eta haur argitalpena (eta ikas materiala IKASen kasuan)

- argitaletxe gehienek euskaraz ez bakarrik, frantsesez ere argitaratzen dute, eta azken horrentzat maiz titulu eta ale gehiago ekoizten dira. ARPELek azpimarratu du, euskaraz soilik ekoizten dutenentzat diru laguntzak erabakigarriak dira. Horrek agerian ematen du euskarazko argitalpena ez dela errentagarria
  - Hego Euskal Herriko ekoizpena askoz handiagoa da, eskaintzaren aniztasunari dagokionez besteak beste. 40 aldiz handiagoa da titulu kopuruetan, eta ale ekoizpenen bolumena 70 aldiz handiagoa da
  - Iparraldeko ekoizpena urtean bi aldiz plazaratzen da, Durango (abendua) eta Sarako (Pazko) azoken kariatara
  - Argitaratzaile gehienek ez dute kontraturik izenpetzen autore eta itzultzaileekin
- Merkaturatzea
    - sos arazoengatik argitaratzaile gehienek auto-banaketa egiten dute, bederen beren ekoizpenaren parte batentzat
    - euskarazko argitalpengintzan berezitua den banatzaile bakar bat bada
    - banatzaileak azpimarratu du, argitaratzaileek ez dutela ekoizpenen promozio euskarririk ematen
    - sei salmenta gune daude iparraldean euskarazko argitalpenari leku berezi bat egiten diotenak baina hauetan euskarazko fondoak ez du fondo orokorraren %15a gainditzen
  - Promozioa:
    - Argitaletxeek eraman promozio jarduera eta erabili tresna nagusiak dira: paperezko katalogoa, Internet gunea, azokak
  - EEP eta EKEren eskusartzeak euskarazko argitalpenaren arloan
    - EEP :
      - EEP-EAEn proiektu deialdiaren baitan banatu diru laguntzen kopurua 31 378€koa izan da 2007an argitalpen sailean (41 452€koa 2008an)
      - Euskarazko ikas materialaren urteko aurrekontua 2007an : 300 000€ (argitalpen programak eta IKASen funtzionamendurako laguntza barne)
    - EKE:
      - 8000 € banatu izan da 2007an hiru argitaletxeei
      - Promozio operazioak EKEk zuzenean kudeatuak : mediateketan irakurketa taldeen animazioa, kultur asteen antolaketa
      - Argitaratzaileen egonaldia Durangoko azokan
      - Sarako Biltzarrari diru laguntza

Azterketa honen ondotik ARPELek hainbat lan ardatz proposatzen ditu, argitaratzaile, banatzaile, eta liburu-denda eta liburuzainen beharrei erantzuteko. Lan ardatz horiek hiru jardueren inguruan egituratuak dira : ekoizpena, merkaturatzea, komunikazioa.

Proposamen horien aitzin solas gisa, hainbat galdera pausatua dira, eskumeneren banaketaz, eta erakundeen laguntza dispositiboaz.

- Argitaratzaileen profesionalizatzea
  - Argitaratzaileek beren arteko batasun baten sortzea: indarren eta baliabideen bateratzeko, solaskide bakar bat ukan dezaten erakunde publikoek elkarriketan sartzeko, eta solaskide bakar bat izan dadin ere profesionalen arteko muga-gaindiko lankidetzan
  - Formakuntza profesionalaren beharra
- EEP eta EKE ren arteko egitekoen argitzeko beharra
- Argitaratzaile instituzionalak : eredugarri izan
  - autorearekilako kontratuaren egokitasunean
  - eskola elebidunetan lehen mailako kopuruen emendatze erregularrak, eta argitaletxe hauek gazte literatur fondo bat muntatu nahi izanak, hainbat galdera pausatzen ditu ekoizpen hauek eskoletan dohainik banatzeari buruz, dohainik izatearena bortxaz dudan jarri gabe. Izan ere gazte literaturako titulu hauek familiak interesa ditzakete plazereko irakurketa batentzat, eta titulu hauen biderkatze garrantzitsu bat gertatzen balitz, baliteke merkatuaren hedatze aukerak oztopatzea.
- EEP-EAEn proiektu deialdiko laguntzen esleitze irizpideen definitzea argitalpen arloan

- EAEn eskutik, 300 aleen erosketa sistematikoa  
Urtero EAEk 300 ale erosten ditu agertu euskarazko titulu bakoitz, prezio publikoaren %50a ordainduz. Ale horiek dohainik banatzen dira 150naka, eskaera egiten duten eskola eta liburutegi guzietan mugaz bi aldetan. Laguntza dispositibo hau, irakurketa publiko saileko laguntza bat da. Baina hainbat argitalpen proiektuentzat salmenta kopuru bat segurtatzen du, maiz honen errentagarritasuna baldintzatuz. Laguntza dispositibo horri buruz, hainbat galdera pausatzen ditu ARPELek:
  - liburutegietako fondoak osaketa ez da gogoetatua eta ondorioz honen balorizatzea neke da (batzuetan liburuak kartoietan egoten dira)
  - aleen dohainik banatzeak, ekoizpenen berezko balorearen arazoa pausatzen du
  - liburuaren katearen ez errespetatzea eta haren errealitate ekonomikoen ekiditea ere aipa daitezke

ARPELek lan hau ekoitzi ondotik, argitalpeneko eragileekin elkarraditze une bat antolatu dute EEPk eta EKEk, haien iritzia biltzeko ARPELek aholkatuaz.

**Gogoeta fase osoa, EKEekin eraman da, partaidetza hertsiki batean. Izan ere, argitalpenaren gaia bi erakundeek egitekoen bidegurutzean izanki, koherentzia eta eraginkortasunak gogoan, zilegi da egin molde elkarraditu baten plantan jartzea, elkarrekin definitutako jardura egitarau baten forma hartuko duena. Honako dokumentu hau, lan metodologia horren lehen emaitza bat da.** ARPELek proposatu lan ardatzak abiapuntu harturik, lehenetsunez plantan jarri behar diren ekintzak definitzen ditu. Ekintza bakoitz, gidaritza moldeak ere definitzen ditu : EEP, EKE edo biak batera.

**Ondoko egitarau hau, EEPko Administrazio Kontseiluak baieztatzen du.**

## Lehentasunezko jarduera programa

A. Euskaraz argitalpen eskaintza eskuragarri jarri liburuaren katea hedatuz eta sendotuz	EKE -ICB	EEP -OPLB
1. <u>Euskaraz ekoizten duten Iparraldeko argitaletxeen profesionalizatzea:</u>		
→ argitaletxeak lagundu beren ekoizpen jardueran kalitatezko eta erabateko eskaintza baten segurtatzeko		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekoizpenen argitaratzea lagundu, esleitze irizpideak zehaztuz: <i>dosierren tratatzeko prozedurak, proiektuen aukeraketarentzat epaimahai baten eraketa, autofinantzamendu heinaren definitzea, zuzenketa eta berrirakurketa gastuendako diru-laguntza bereziak, lehenetsi beharreko segmentu eta publikoak...</i></li> </ul>		X EEP-EAE proiektu deialdiaren baitan
→ argitaratzaileak lagundu merkaturatze eta promozio tresna edo jarduera elebidunen plantan jartzen		
<ul style="list-style-type: none"> <li>liburutegi, liburu-denda eta banatzaileei zuzendu euskarazko berrikuntzen gutun elektronikoko elebidun baten eraketa, tartean testu komertzial bat proposa lezakeena</li> </ul>	X	X
<ul style="list-style-type: none"> <li>merkaturatze eta promozio tresnen ekoizteko laguntza kudeatu eta doazkion esleipen irizpideak definitu</li> </ul>		X EEP-EAE proiektu deialdiaren baitan
2. <u>Dagoen banaketa tresna eraginkortu</u>		
→ Elkarrekin partaidetza bat sortu, muga-gaindi euskaraz argitaratzen den eskaintza orokorraren lagin adierazgarri bat banatua izan dadin <i>Zehaztekoa: banatzailearen engaiamenduak, deontologia arauak, saltokien zerrenda bat....</i>		X

B. Euskarazko literatur sorkuntza sustatu	EKE -ICB	EEP -OPLB
1. <u>Autoreak bultzatu eta lagundu beren sorkuntza lanean</u>		
→ birdefinitu dauden literatur sariak	X	
→ gazte literatur sari bat sortu	X	X
2. <u>Literatur itzulpena bultzatu trukaketa eta hedapenaren laguntzeko</u>		
→ Frantseserako itzulpenaren laguntzeko tresnak zehaztu	X	
→ Frantsesetik euskara edo euskaratik frantseserako itzultzaile egonaldi baten sortzea <i>Zehaztekoa : iraupena, beka edo etxe baten prestatzea, EIZIE edota ARPELekin partaidetza baten interesa aztertu</i>	X	
3. <u>Euskarazko literatur munduaren bizitasuna sustatu</u>		
→ eskola eta eskolaz kanpoko animazioen antolaketa lagundu		X EEP-EAE proiektu deialdiaren baitan eta eskolen deialdiaren baitan
→ helduendako irakurketa/idazketa tailerrak antolatu	X	
→ euskal literaturaren promozio/animazio ekintzei zuzendu laguntza lerroa kudeatu eta doazkion esleipen irizpideak zehaztu	X	

C. Euskarazko argitalpenaren promozioa egin	EKE -ICB	EEP -OPLB
1. <u>Euskarazko ekoizpena aurkeztzen duen webgune eleanitz bat sortu EEP eta EKEren guneekin loturak ukan litzakeena</u>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekoizpena bildu eta bilaketa aukerak antolatu argitaletxe, autore, gai edota tituluen arabera, azalen argazkiak emanez, aurkezpen fitxak, obraren laburpena, prezioa, kodigo barra, kategoria...</li> <li>Berrikuntzen gutun elektronikoko bat sistematikoki liburu-denda, liburutegi eta banatzaileei igorria</li> <li>Liburutegi eta liburu-dendetako fondoan balorizatzen laguntzeko tresna eleanitzak eskuragarri jarri webgunean, besteak beste liburuen ulertzeko gakoak izan daitezkeenak</li> </ul>	X	X

<u>2. Euskarazko eskaintzaren promozioa egin liburu azoken bitartez</u>		
→ Durangon iparraldeko argitaletxeen euskarazko ekoizpenen promozioa egituratu	X	
→ Liburuaren promozio lanean segitu Sarako azokan, euskal liburuak iparraldean duen erakutsi gune nagusia baita	X	
→ Beste azoka batzuetan, halako desmarta baten eramateko interesa aztertu	X	
<u>3. Irakurketa publikoko sarean, euskarazko ekoizpenaren presentzia hobetu</u>		
→ Irakurketa publikoaren arloan plantan dauden politika publikoekiko partaidetzak garatu (Kontseilu Nagusia, Herri Elkargoak... )	X	X
→ Profesionalei formakuntzak proposatu		
▪ euskararen ikaskuntza		X
▪ hizkuntza eta kultura ulertu <ul style="list-style-type: none"> <li>○ euskarazko obra baten ulertzeko gako batzuen eskuratzeko : hizkuntzaren garrantzia historiko eta kulturala, literaturaren tokia eta bere garapena, euskarazko argitalpenaren ekonomia eta publikoak</li> </ul>	X	
▪ nola balorizatu euskarazko fondo bat	X	
→ Euskarazko fondoaren balorizazio lanean, liburuzaina laguntzeko tresnak eskuragarri jarri	X	
→ Euskarazko fondo baten balorizatzeko animazioak proposatu	X	

<b>D. ARPELe eta Akitaniako Kontseiluak plantan jarri formakuntzentzat eta beste laguntza dispositiboentzat, lekuko eragileei informazioa luzatu</b>	<b>EKE - ICB</b>	<b>EEP - OPLB</b>
Formakuntza : argitalpen proiektu bat eratu ⇒ OPCA – Akitaniako Kontseiluaren arteko partaidetzaren baitan	X	X
Formakuntza : tekniken aukeraketa ⇒ OPCA – Akitaniako Kontseiluaren arteko partaidetzaren baitan	X	X
Formakuntza : PAO ⇒ OPCA – Akitaniako Kontseiluaren arteko partaidetzaren baitan	X	X
Formakuntza : argitalpen kontratua ⇒ OPCA – Akitaniako Kontseiluaren arteko partaidetzaren baitan	X	X
Formakuntza : argitalpen numerikoa eta zuzenbidea ⇒ OPCA – Akitaniako Kontseiluaren arteko partaidetzaren baitan	X	X
Eduki numerikoei lotu teknikan eta merkaturatzearen bilakaeraren zaintza eguna ⇒ ARPEL	X	X
Formakuntza : oinarrizko tresnen bilakaera ⇒ ARPEL	X	X
Formakuntza: promoziorako tresna eleanitzak eratu ⇒ OPCA – Akitaniako Kontseiluaren arteko partaidetzaren baitan	X	X
Formakuntza: Dreamweaver softwarearekin nor bere webgunea aberastu ⇒ OPCA – Akitaniako Kontseiluaren arteko partaidetzaren baitan	X	X
Argitaratzaileen presentzia ARPELen webgunean (Electre fitxategiaren bitartez) ⇒ obratzailea : ARPEL	X	X
Pariseko saloian egonaldiak ⇒ obratzailea: ARPEL	X	X

Kasuan kasu aztertu behar da, hemengo eragileei berezitatutako formakuntza batzuen antolatzekeo interesa.

**A, B eta C ataletan aipatu lan ardatz guzientzat, eta partilulari maila tekniko azkar bat dutenentzat, ARPELeke partaidetza bat eramanen da, tresna eta ekintza konkretuen definitzeko.**